

\* **BONBOLONTENA** \*

(NABARA-ERESIA)

*Adiro*



Bonbolontena,  
ene laztana,  
ez egin lorik basuan.  
Azeritubak  
eruingo au  
errikuma azalakuan.  
¡Lo!...

Ozi zabalán  
ixar-artian  
argi-yagik ilazkijak.  
Beren izpijak  
iluntzen dozak  
begitxu oyes aldian.  
¡Lo!...

**Euzkel-abestijak**

EUKELTZALE-BAZKUNA'k argitaldu dau oraintxu euzkel-  
abestidun irugarren idaztija.

Inguazti onek 25 abesti daukoz, bata bestia baño  
polifaguak. Salaberri, Azkue, Guridi, Donostia' Aba ta  
Bordes'ek artuta dagoz abestijok. Euretari batzuk dira  
Bidasoa-andikuak eta bestiak alde onetakuak.

Gauza eder-polifik euki gura ba-dozube, erosi Euzkel-  
abestidun irugarren inguaztija. Bere abestijakin gogua  
alaitu ta euzko-usañez beteko dozube.

Idazti edo liburu au adeito dago eginā ta merke-  
merkia da: eñal baten saltzen da EUKELTZALE-BAZKUNA'  
ren etxian, Bidebarieta 14'garēnian, Bilbao'n. Ingi edo  
papera obiagaz eginā, eñal bitan.

**ASTAKILO TA UMEGORI**

- ¡Kaxo, Umegori!
- ¡Aguí, Astakilo! ¿Zelan? Urte asko dira ikusi etzai-  
tudanetik.
- Bai, egija. Biafa ixaten yat noxian-bein perijetara  
etoñia, aizkidiak ikusteko baño ezpa-da be.
- ¿Eta zetan zatoz?
- Txafi batzuk saltzen. Egin-eginiān be, aurtengua  
urte txafa euki dogu eurok azteko.
- Tira, ha, gixona. Ainbeste urte alkařegaz ikusi-  
barik.... Onezkero seme asko eukiko dozuz zezta?
- ¡Ene! Urtian bat, eta bisiesto ixaten danian, bi. Ba-  
tobat erosi gura ba-dauslazu, merke-merke emongo dau-  
tzut.
- ¿Zenbat daukazuz, ba?
- Eztakit amařu ala amalau diran.
- ¿Baña egijaz diñozu zenbatuta eztaukozuzala?
- ¿Zenbatu? ¿Zetarako, ganau ori eztaust iñok ostu-  
ko-ta....?



**ELURTZA**

(ABESTIYA)

Elur txuriyak ditu  
mendiyak estaldu,  
ain edera dalarik  
baita itunez bildu;  
artzaine politari  
txit gogoa ilundi.  
¡Ai, ez du txoritxuak  
goizian abestu!

Umezurtza negafez,  
txoriya dardaizka,  
loretxua igarurik,  
ardiya mafoizka,  
mendi eta zelayak  
elurak jantzita:  
neri iduritzen zaizkit  
iñoyalz bilduta.

¿Nun zera eguzkiya...?  
¿Nun zera, nun zera...?  
Atoz dizdiatzafe  
elurak kentzera;  
iñik dagon luřari  
bizitz ematera,  
mendi, baso, zelayak  
alayež jantzera.

TENE.

**IBIDALDU!!**

Ora negu dolofak nausi egin danian  
Zein bezuza edera jaři daukun ganian:  
Eduřzak ixozuta mendi, baso ta nauñun,  
Lurmenaten apurik eztala ikusten iñun.  
Au ikus dabēnian txori-aldrak aneika,  
Oro bat asi dira eguzkijari deika:  
«Zatoz eguzki ori edur onen ganera,  
Urtu ta bidaltzeko itxaso zabalera.  
Txorijak biař-dabe goyan ta beyan azke  
Negu doloran janzi gogor ori kendute.»  
Geuk be deñu dayogun txori ofen antzera:  
«Zatoz eguzki ori Euzkeleri mařera;  
Zikinkeri gustijak erdereaz batera  
Igarı-barik saftu yakuz geure ařtera;  
Erdalkeri zikinak bidaldu... erbestera...  
Geugaz bixi dafezan Euzkadı ta Euzkera.

ENBEITA'TAR KEPA.

